

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

179

2/2026 DEKRETUA, urtarrilaren 13koa, M.^a Teresa Astigarraga Goenaga andrea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko kide kargutik kentzea xedatzen duena.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 8.2.d) artikulua xedatzen duenez, funtzionario-izaera galtzea da batzordeko kideek kargua uzteko arrazoietakoa bat, eta, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 64.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, inguruabar hori gertatzen da, besteak beste, funtzionarioak erretiro osoa hartzeagatik.

M.^a Teresa Astigarraga Goenaga andreak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Oroko-rean duen lanpostuan erretiroa hartu duenez, 2025eko azaroaren 26tik aurrerako ondorioekin, bidezkoa da haren kargu-uztea formalizatzea, 9/2004 Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ondorioz, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2026ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— M.^a Teresa Astigarraga Goenaga andrea Euskadiko Aholku Batzorde Juridiko kide kargutik kentzea eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Dekretu honek 2025eko azaroaren 26tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko urtarrilaren 13an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.